

# [Cast/Eusk] Jardun Koordinadora ezkertiar eta Independentistaren sorrera.

EUSKO EKINTZA / JARKI :: 21/08/2020

Creación de una Coordinadora de Actuación de izquierdas e independentista. Texto de presentación leído el día de Albertia

## Castellano

Hoy en Albertia, traemos a la memoria a los gudaris que haciendo frente al faxismo lucharon por la libertad de Euskal Herria en la guerra del 36. Aun así, no podemos, de ninguna manera, traerles a la memoria desde el recuerdo que esconde una perspectiva folclorista. Mas allá de las lágrimas, hemos de abordar el acto de hoy desde el punto de vista del pueblo trabajador, cuyo único deseo es vencer y luchar. Es por eso que hoy, mas allá del recuerdo, reivindicamos la legitimidad de la lucha de todos aquellos que en Albertia y en distintos puntos de Euskal Herria han caído en favor de este pueblo. Precisamente, el día de Albertia de 2020 se ha organizado en la línea de ese deseo de seguir luchando, en el cual sus organizadores queremos hacer pública una nueva herramienta que debe responder a las aspiraciones del Pueblo Trabajador Vasco. Una herramienta que debe funcionar como espacio para la activación y la organización.

A causa de fracturas acaecidas por distintas razones desde que terminó el ciclo anterior, las distintas organizaciones no hemos sido capaces de superar nuestras diferencias y desconfianzas en aras de acordar espacios de unidad y coordinación. Hoy, Eusko Ekintza y la organización revolucionaria JARKI queremos presentar un espacio de coordinación llamado JARDUN al Pueblo Trabajador Vasco. JARDUN no es una escisión de nada, sino un marco que debe dar cobijo a distintas organizaciones de carácter nacional y local aunándolas en un proyecto político y una estrategia de carácter revolucionario independentista y socialista. Para que así, cada cual pueda, desde su espacio de lucha, organizarse de manera individual o colectiva.

La presentación de hoy, mas allá de ser un desvarío de ciertas organizaciones, va en la línea de la capacidad que el Pueblo Trabajador Vasco ha mostrado históricamente a la hora de hacer frente a la opresión que padece y auto-organizarse. JARDUN no es una marca para que las organizaciones que lo componen impongan su ideología ni su proyecto político. Es un punto de encuentro cuyo objetivo es englobar y coordinar al Pueblo Trabajador Vasco, y a todas las organizaciones que trabajan en favor del mismo, entorno a unos principios ideológicos amplios pero definidos. Sus objetivos estratégicos son claros:

La construcción de un Estado Independiente y Socialista que integre a Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behera, Nafarroa Garaia y Zuberoa.

**La construcción de una sociedad basada en el poder de la clase trabajadora vasca, en la superación de la lucha de clases y en la socialización de los medios de producción. Superar toda opresión contra las mujeres trabajadoras. Reunificación de**

## **Euskal Herria.Re-euskaldunización de Euskal Herria.**

La nueva alternativa del Pueblo Trabajador Vasco es un proyecto político independentista y socialista cuyos principios ideológicos tienen seis puntos principales:

Independencia.

### **Socialismo.Internacionalismo.Feminismo de clase.Amnistía.Ecologismo.**

Independencia. La cuestión nacional está enmarcada dentro de las distintas opresiones que padece el Pueblo Trabajador Vasco, opresión que en opinión de la coordinadora solo puede superarse mediante la independencia. Es decir, cuando hablamos de la autodeterminación, nos referimos al derecho innegable del Pueblo Trabajador Vasco para separarse de los estados que lo oprimen y emprender un proceso de construcción de un estado independiente y socialista.

Socialismo. Antes de hablar del socialismo conviene concretar a que nos referimos cuando hablamos del Pueblo Trabajador Vasco. El Pueblo Trabajador Vasco está conformado por todo aquel que vive y vende su fuerza de trabajo en Euskal Herria. Todo trabajador enmarcado en el PTV, desde en el momento que padece la explotación y la opresión, es decir, desde en el momento que padece el zarpazo del capital de manera cruda en su día a día, tiene el potencial para organizar la revolución. Por lo tanto, cuando hablamos del socialismo, nos referimos a la superación de la opresión de clase que padece el Pueblo Trabajador Vasco, en el camino a la creación de una sociedad sin clases.

Internacionalismo. Hemos de entender que el Pueblo Trabajador Vasco no puede acometer la lucha contra el capital en solitario. Es necesario mantener contacto con los distintos pueblos oprimidos y proveernos de ayuda mutua. Aún así, JARDUN siempre fijará una línea roja infranqueable, que el marco nacional del Pueblo trabajador vasco jamás podrá ponerse en duda.

Feminismo de clase. Es necesario superar la dicotomía sexo-género y el papel reproductivo que le impone el capital a la mujer trabajadora, para poder superar la opresión que padece la mujer trabajadora y las razones estructurales que la originan.

Amnistía. La amnistía es un término de carácter estratégico que mas allá de limitarse a la libertad de todos aquellos luchadores que han trabajado en favor de la libertad de Euskal Herria, supone el reconocimiento político a ojos del pueblo trabajador de la lucha que han llevado a cabo y el poner a disposición de la justicia popular a aquellos que lo han oprimido sistemáticamente.

Ecologismo. Dentro del modelo productivo capitalista actual el medio ambiente padece una sobreexplotación respondiendo a la lógica de obtener el mayor rendimiento económico posible, siendo generados mas desperdicios de los que se pueden gestionar y generando una degradación que en muchos casos pone en riesgo las condiciones de vida. Es por eso que la lucha ecologista únicamente puede enfocarse desde un cambio de raíz de los procesos productivos.

Los seis puntos anteriormente expuestos que definen la ideología de JARDUN no pueden entenderse, ni abordarse, de una manera aislada, puesto que, si su consecución no va de la mano de los otros, lo único que conseguiremos será perpetuar la opresión que padece el Pueblo Trabajador Vasco. De la misma manera, únicamente abordando estos puntos desde un punto de vista de clase podrán obtener los trabajadores de Euskal Herria el control de los procesos productivos y el poder político, neutralizando a la burguesía.

Aunque el Pueblo Trabajador Vasco tiene el potencial para llevar a cabo la revolución, únicamente adquiriendo conciencia de su situación y organizándose en pos de la liberación nacional y social podrá dar comienzo al proceso revolucionario, conformando el Proletariado Revolucionario Vasco. Precisamente, JARDUN debe ser el espacio organizativo del Proletariado Revolucionario Vasco. Al mismo tiempo, la pueblo trabajador a nivel orgánico debe estar conformada por distintas organizaciones de carácter sectorial que trabajen bajo unos mismos objetivos estratégicos, para la construcción de una Euskal Herria independiente y socialista.

De la misma manera que nuestros antecesores hicieron frente a la opresión que padecía este pueblo y lucharon contra el fascismo en Albertia, hoy, nos corresponde a nosotros hacer frente a la opresión que padece el pueblo trabajador y para eso es necesaria la unidad, es necesario sumar fuerzas. Es el momento de empezar a sumar fuerzas. Es necesario juntarse con distintos grupos de Euskal Herria y defender un proyecto común. Es necesario que distintos grupos se sumen a JARDUN, para que cada uno desde su trinchera pueda aportar lo que pueda, con un compromiso firme, y así responder como pueblo, como pueblo trabajador al capital. Puesto que, nosotros tenemos muy claro cual es el camino a seguir y que estrategia ha de llevarse a cabo. Y que no quepa ninguna duda de que seguiremos trabajando en esa dirección. Por aquellos que han dado la vida, por Euskal Herria y por los trabajador de Euskal Herria.

Gora Euskal Herria askatuta!

Inependentzia eta sozialismoa!

## **Albertia, 2020ko abuztuaren 15**

### **Euskera**

Gaur, Albertian, 36ko gerran Euskal Herriaren askatasunaren alde faxismoari aurre eginez borrokan ibilitako gudariak dakartzagu gogora. Hala ere, ezin ditugu, inondik inora, oroitzapenez mozorrotutako ikuspuntu folklorista baten izenean gogora ekarri. Negarretatik haratago, irabazi nahia, arerioari aurre egin eta borrokatzeko guraria duen herri langilearen ikuspuntutik burutu dugu gaurko ekitaldia. Izan ere, gaur, oroitzapenetatik haratago, Albertian zein Euskal Herriko txoko ezberdinetan herriaren alde eroritakoek aurrera eramandako borrokaren zilegitasuna aldarrikatzen dugu. Hain zuen ere, borrokarako grina horren eskutik 2020ko Albertia eguna antolatu eta bertaratzea babestu dugun antolakundeok, Euskal Herri Langilearen beharrizanei erantzun behar dien tresna egin nahi dugu publiko. Euskal Herri Langilea aktibatu eta antolatzeko esparru gisa funtzionatu behar duen tresna, alegia.

Aurreko zikloa amaitu zenetik arrazoi ezberdinen ondorioz emandako banaketan ondoren, antolakunde ezberdinak ez gara gai izan ezinikusiak eta mesfidantzak gainditu eta batasunerako eta koordinaziorako espazioak adosteko. Gaur, Eusko Ekintzak eta JARKI antolakunde iraultzaileak JARDUN izeneko koordinadora plazaratu nahi diogu Euskal Herri Langileari. JARDUN ez da ezeren zatiketa, izaera nazional zein lokaleko antolakundeak biltzeko eta hauek estrategia eta izaera iraultzaile, independentista eta sozialistako proiektu politiko baten aterkipean antolatzeko aukera eman behar duen markoa baizik. Bakoitzak bere borroka esparru edota lan ildotik, norbanako zein kolektibo moduan antolatu eta lan egiteko aukera eman behar duena, hain zuzen.

Gaurko aurkezpena, zenbait antolakunderen harrikadatik haratago, Euskal Herri Langileak historikoki antolatzeko eta beronek pairatzen duen jazarpenari aurre egiteko erakutsi duen auto-antolakuntzaren eta honetarako tresnez hornitzeko gaitasunaren jarraipena baino ez dugu. JARDUN ez da berau osatzen duten antolakundeek euren ideologia edota proiektu politikoa inposatu eta zabaltzeko marka bat, oinarri ideologiko zabal baina zehatz batzuen pean,

Euskal Herri Langilea eta honen hobe beharrez diharduten antolakunde ezberdinak barnebildu eta koordinatzea helburu duen elkargunea baizik, bere helburu estrategikoak argiak direlarik:

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behera, Nafarroa Garaia eta Zuberoa barnebiltzen dituen estatu independiente eta sozialistaren eraikuntza.

Euskal langileriaren boterean, klase gatazkaren gainditzean eta ekoizpen baliabideen sozializazioan oinarritutako gizartearen eraikuntza. Emakume langileon zapalkuntza forma guztien gainditzea. Euskal Herriaren birbatzea. Euskal Herriaren berreuskalduntzea.

Proiektu politiko independentista eta sozialista da, hain zuzen ere, Euskal Herri Langilearen alternatiba berria, bere oinarri ideologikoek 6 ardatz nagusi dituztelarik:

Independentzia.

Sozialismoa. Internazionalismoa. Klase feminismoa. Amnistia. Ekologismoa.

Independentzia, Euskal Herri Langileak pairatzen dituen zapalketen artean kokatzen da nazio auzia, koordinadoraren aburuz, independentziaren bitartez bakarrik gainditu daitekeena halabeharrez. Hau da, autodeterminazioaz ari garenean, Euskal Herri Langileak estatu zapaltaileengandik banandu eta euskal estatu independiente eta sozialista bat eraikitzeko prozesua abiarazteko eskubide ukaezinaz ari gara.

Sozialismoa. Sozialismoaz hitz egiten hasi aurretik, Euskal Herri Langileaz ari garenean zertaz ari garen argitzea komeni da. Euskal Herri Langilea Euskal Herrian bizi eta euren lan indarra saltzen dutenek osatzen dute. Bertan kokatutako langile orok esplotazioa eta zapalkuntza jasaten dituen heinean, hau da, kapitalaren atzamarkadak egunerokotasunean bere bizitzan era gordinean pairatzen dituen heinean, iraultza antolatzeko potentzialtasuna dauka. Hortaz, sozialismoaz ari garenean, Euskal Herri Langileak pairatzen duen klase izaerako gatazkaren gainditzeaz ari gara, klase gabeko gizarte bat erdiesterako bidean.

Internazionalismoa. Ulertu behar dugu kapitalaren aurreko borrokan Euskal Herri Langileak ezin duela hau bere kasa bakarrik burutu, eta beharrezkoa dela zapaldutako herri ezberdinekin hartu-emanak mantendu eta elkarri laguntzea. Betiere argi izanda, JARDUN-ek marra gorri bat finkatzen duela hasieratik, Euskal Herri Langilearen esparru nazionala ezingo dela, inolaz ere, ezbaian jarri.

Klase feminismoa. Emakume langileak pairatzen duen zapalkuntza eta hau sorrarazten duten egiturazko arrazoia gainditu behar direlako, sexu-genero banaketa gaindituz eta kapitalak emakume langilearengan finkatzen duen paper birproduktiboa deuseztatzu.

Amnistia. Euskal Herriaren askatasunaren alde aritutako borrokalari ororen kaleratzeaz haratago, amnistia, herri langilearen begietan hauek aurrera eramandako borrokaren izaera politikoa aitortzea, eta herri langilea jazartzen aritu direnak herri justiziaren esku uztea inplikatzen duen izaera estrategikoko terminoa dugu.

Ekologismoa. Egungo ekoizpen eredu kapitalistapean, ahalik eta etekin ekonomiko handiena erdiesteko logikapeko gain-ustiapena pairatzen du ingurumenak, irentsi ditzakeen baino hondakin gehiago sortuz eta bizitza bera ahalbidetzen duten baldintzak mantentzea zalantzan jartzera inoko degradazioa eraginez. Gauzak horrela, ekologismoaren aldeko borroka produkzio formen errrotiko aldaketatik bakarrik bideratu daiteke.

JARDUN-en ideologia zehazten duten aurreko sei ardatzak, ezin ditugu era banatu edo isolatuan ulertu, ardatzotako baten lanketa edota erdiespna gainerakoен eskutik ez baldin badator, Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntzaren betikotzea baitakar. Era berean, ardatzok klase ikuspegitik jorratuta soilik erdietsi daitezke, burgesiaren nagusitasuna irauli eta ekoizpen baliabideak eta botere politikoa Euskal Herriko langileriaren esku utziz.

Euskal Herri Langileak iraultza egiteko potentzialtasuna badu ere, bere zapalketa egoeraz jabetu eta askapen nazional eta sozialaren alde antolatzean soilik abia daiteke prozesu iraultzailea, Euskal Langileri Iraultzailea eratuz, alegia. Hain zuen ere, Euskal Langileri Iraultzailearentzako antolatzeko esparrua izan behar da JARDUN. Koordinadora Euskal Herri independiente eta sozialista eraikitzeko helburu estrategiko berdinak partekatuz diharduten izaera sektorialeko antolakundeak barnebiltzen dituen irudia izan behar da.

Antolakunde bakoitzak bere esparruan, bere errealtatean era eraginkorrean jardunez baina estrategia amankomun baten pean, zintzotasunez eta Euskal Herri Langilearen mesederako klabe eraikitzailean jardungo duen proiektu politiko propioaren logikapean lan egiteko aukera eman behar du koordinadorak.

Albertian, gure aurrekoek garaiko errealtitateari so eginda herriak pairatzen zuen zapalketa eta faxismoaren aurka borrokatu zuten bezala, egun, guri dagokigu Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalketari aurre egitea, eta horretarako beharrezko da batasuna, horretarako beharrezko da indarrak batzea. Indarrak batzen hasteko garaia da. Beharrezko da Euskal Herriko talde ezberdinekin batu eta proiektu amankomun bat babestea. Beharrezko da talde ezberdinak JARDUN-era batzea, bakoitzak bere esparruan ahal duen ekarpena eginez, baina konpromiso irmoarekin, herri gisa, herri langile gisa kapitalari aurre egiteko, guk argi daukagulako jarraitu beharreko ibilbidea eta aurrera

eraman beharreko estrategia zein den. Eta ez izan zalantzarak klabe horretan jarraituko dugula lanean. Borrokan bizitza eman dutenengatik, Euskal Herriarengatik eta Euskal Herriko langileengatik.

Gora Euskal Herria askatuta!

Independentzia eta Sozialismoa!

**Albertian, 2020ko abuztuaren 15.**

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-jardun-koordinadura-ezkertiar>